

(II) Piarresen Igandeak,  
Biharramunean 3-

Eta, zalu zaluia, jauzika ezpartin xuritan heldu zen oru Piarres, sorho handiari behera. Miñauta<sup>16</sup> multzo bat, inguruka, biraka

bazabilan, han, beheretako landa hetan, Beren kukurustak<sup>17</sup> sante-iaka bezala gibelerat, hegaztiak iguzkira xuri xuria, berho zuzietarik urrun, sorhoaren erdian, haur batzu bezala salto eta jauzi ari ziren, intzireka, xixtuka, hegaztiak, hemen har beltz bat athera, hantxet zizari luze luze bat...

Urrundik airatu<sup>18</sup> zitzaitzkon Piarresi, behako<sup>19</sup> bat doi doia eman baitzioten multziko gazte erneak. Gauza bitxia! Oihan eta errekok oro hain ongi zazkien kontrabandista harek eskerrik ez zuen ihizirrentzat, eta herrian, gutiz gehienek, ez harek baino gehiago. Herbi bakar zonbeit doi doia, eliza phestari buruz, *arteau* atxemaiten zituenak, edo beharrez tirokatzen. Pekada zonbeit gero, jaun merentzat<sup>20</sup> edo gresierarentzat<sup>21</sup>, ... eta hortan akabo. Mixel zabarrari uzten ziozkan bertzeak; eta martxoan, urrian, usoak hedoika Olhasso kaskoan iragaiten zirelarik, doi doia gelditzen zen lanetik, behako baten heieri emaiteko eta Goix-bideko gain hetan herriko aizinatuak edo ihiztari errabiatu bakhart zonbeitek igortzen ziozkaen tiro-banperi ohartzeko...

Herrirat heldu eta, bere asteko *belharra* karrika buruan erosirik, hura elizan sartzean berean, hasi zen meza-nausia. Kapelu, pare-<sup>22</sup>ko itze handi bat dilindan emanik, selauruetan,<sup>23</sup> bethiko bere okian belhaunikatu zen, agur bat egin Jainkoari, gero bere ezkerreko eta eskuineko laguneri, eta arrosarioak eskuan, etxeen laburxko egin goizeko othoitza berriz hantxet hasi zuen eta aldi huntan bururatu.

Orai kanta zezaken, eta deskantsuz, bere gazte lagunekin. Eta kantatzen ere zuen, kantatzen ere zuten orok, burrustaka gainetik beheitii, aldareko argiak harat hunat ibilarazteko heinean.

Jaun erretorak bere phedeikua bururatu zuenean, bet-betan, Piarres, begitarteko zain bat mogitu gabe halere, gauza batz iohartu (zitzaiotz), halako lazta<sup>24</sup> batekin.

Jen

(I) ELHEKETA	Aste hantxako solas-gaia 1) Piarresek Elizatekoan zer ikerosten ditu? 2) Piarres ikerari haundi a zenu? 3) Piarresek nola kantatzen zenu?
--------------	--

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Bazabilan 32. Ongi zazkien  
33. Kanta zezaken 34. Aiatu zitzaitzkon  
31 IBILI. Indicatif -

Present	Imparfait
Ni nabilo (je marche)	Ninda bilan (je marchais)
Hi habila	Hindabilan
Zu zabiltzga	zinabiltzan
Hura dabilo	zabilan
Gu gabiltza	ginabiltzan
Zuek zabiltzate	zinabiltzaten
Hek dabiltzga etc	zabiltzan etc

## 32. TAKIN Indicatif - Imparfait

Objet sing.	Objet pluriel
Nik nakieng = je le savais	N naziakien (je les savais)
Hik hakieng	H hazkieng
Zuk zinakieng	Z zinazkieng
Harek zakieng	H zazkieng
Guak ginakieng	G ginazkieng
Zuek zinakieng	Z zinazkiten
Heiek zakieng etc	H zazkiten etc

## 33 UKAN. Potentiel Imparfait

Nik ukau nezaken = je pourrais	U mitzazken
Hik " nezaken l'auvai	" hitzazken
Zuk " zinezaken	" zinezazken
Harek " zezaken	" zitzazken
Guak " ginezaken	" ginezazken
Zuek " zinezaketen	" zinezazketen
Heiek " zezaketen etc	" zitzazketen

D. singulier

D. pluriel